

Maite Alonso, Presidenta
Igone Abio
Xabier Aizpurua
Asier Aloria
Yoanna Arambalza
Iñaki Azpitarte
Asunción Eguren
Ana Eizagirre
Néstor Eriz
Xabier Garagorri
Begoña Garamendi
Pablo García de Vicuña
Amaia Jauregiberri
Juan Carlos Jauregui
M^a Luisa Jaussi
Isabel Kapanaga
Carlos López
Carmelo Martínez
Mari Tere Ojanguren
Ana Puente
Ismael Redondo
Raimundo Rubio
Axier San Miguel
Alfonso Tejedor
Nerea Undabarrena
Usua Urbietta
Eva Blanco, secretaria técnica

IRIZPEN 15/20

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuraren 2015eko azaroaren 17ko bileran bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek gehiengoz eman du **Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta EAEn ezartzen duen proiektu Dekretuari buruzko irizpena**

I. AURREKARIAK

Indarrean den Batxilergoko curriculuma 23/2009 Dekretuan jasotzen da, 122/2010 Dekretuan sarturiko aldaketekin.

Gerora, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) hainbat aldaketa sartu ditu hezkuntza-sistema osoaren antolamenduan, eta 1105/2014 Errege Dekretuak Batxilergoko oinarritzko curriculuma ezarri zuen.

Bestalde, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Heziberri 2020 plana garatzen du dekretu-proiektu honetan, Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoaren bidez.

II. EDUKIA

Dekretu-proiektuak 44 artikulua ditu, 8 kapitulutan banatuta, eta eduki hau dute:

- I. kapitulua, xedapen orokorrak (1-5 artikulua)

- II. kapitulua, oinarrizko konpetentziak (6-12 artikulua)
- III. kapitulua, curriculumaren antolamendua (13-19 artikulua)
- IV. kapitulua, proiektu instituzionalak eta plangintza (20-30 artikulua)
- V. kapitulua, ikastetxe publikoen autonomia proiektuak (31-33 artikulua)
- VI. kapitulua, tutoretza, orientazioa eta aniztasunerako arreta (34 artikulua)
- VII. kapitulua, ikasleak: eskolatzea, ebaluazioa, sustapena eta titulazioa (35-40 artikulua)
- VIII. kapitulua, hezkuntza eta ikerketa sistemaren ebaluazioa (41-44 artikulua)

Horrez gain, lau xedapen gehigarri ditu: aplikazio egutegia (1. XG), erlijioaren irakaskuntza (2. XG), Helduen Hezkuntza (3. XG), eta hezkuntza sistema hobetzeko plana (4. XG).

Amaitzeko, dekretu proiektuak bi eranskin ditu: I. eranskinean batxilergoko hiru modalitateen gutxieneko erreferentziazko ordutegia jasotzen da; II. eranskinak bi zati ditu: lehenengoan, curriculumaren planteamendu orokorra egiten da eta bigarrenan, etaparen planteamendu zehatza. III. eranskinak Batxilergoko ikasgaien arteko jarraipena aipatzen du.

III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Kontseiluak iraileko lehen astean jaso zuen dekretu proiektu hau, eta irizpena azaroan sartuta gaudenean onartu da. Beraz, hainbat tramite egiteko daude oraindik eta ziurrenik ez da EHAAan argitaratuko datorren urtera arte.

Hezkuntzako administrazioak dokumentu bat bidali zien ikastetxeei ekainean, non jasotzen baitira zentroak batxilergorako eskaintzen dituen ikasgai propioei buruzko argibideak, eta baita ere Kontseiluak une honetan eskuartean duen proiektuaren aurreko bertsioa, zeinak aldaketa gutxi izan baititu. Era berean, ikasturte hasierako ebazpenak etapa horretan txertatu beharreko antolakuntza-gaiei buruzko informazioa ematen du.

Bestalde, dekretu proiektuak lehen xedapen gehigarrian dio Batxilergoa 2015-16 ikasturtetik aurrera ezarriko dela.

Kontseiluak badaki hainbat ikastetxetan dagoeneko aplikatu dutela dekretu proiektu honetan ezarritakoa, eta Kontseilu honek edo beste organoren batek eskatuta

aldaketaren bat egiten bada, hori ezingo dela ikasturte honetan aplikatu. Kontseiluaren ustez, egun bizi dugun egoera ziurgabea aringarri gisa har badaiteke ere, hobea izango zen dekretu hori behar adinako aurrerapenarekin argitaratu izan balitz, ikastetxeek eta hezkuntza komunitateak denbora izan zezaten egoera berrira egokitzeko eta aldaketak planifikatzeko.

EDUKIAREN ANALISIA

Dekretu proiektua bi ardatz jarraituz aztertu dugu: LOMCE lege organikoa eta Heziberri 2020 proiektua.

A) Zein neurritaraino islatzen den LOMCE dekretu proiektuan

Osoko Bilkuran duela urte eta erdi onartutako erabaki baten bidez, Euskadiko Eskola Kontseiluak irmoki arbuia zuen LOMCE, uste duelako ez dela egokitzen gure hezkuntza-sistemaren premietara eta atzerapausoa dela azken hamarkadetan egindako aurreranzko bidean.

LOMCEk Dekretu proiektu honetan duen eraginaren inguruan, hauxe adierazi nahi dugu:

1. **Batxilergorako sarbidea:** Batxilergo sartzeko derrigorrezkoa izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua izatea eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako amaierako ebaluazioa gaingitzea irakaskuntza akademikoen aukeratik.

Dekretu proiektuaren 1. artikulua dio batxilergoko ikasketak egin ahal izango dituztela DBHko Graduatu titulua duten ikasleek, eta baita ere Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikari edo Kirol teknikari titulua dutenek.

Xedapen hori koherentea da Kontseilu honek hizpide duen Oinarrizko Irakaskuntza Dekretu proiektuarekin, non DBH-ko 4. mailari dagokionez ez baita aipatzen irakaskuntza akademiko eta aplikatuen arteko bereizketarik.

Ez da aipatzen Errege Dekretuaren 26.1 artikuluan jasotzen den eskakizuna, hau da, irakaskuntza akademikoen aukeratik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako amaierako ebaluazioa gaingitzeari buruzkoa.

2. *Batxilergo amaierako hautaketa proba:* LOMCEn arabera, titulua eskuratzeko ezinbestekoa da enborreko ikasgaiak, hautazkoak eta espezifikoak, barne hartzen dituen proba bat gainditzea.

Dekretu proiektuaren 37. artikulua Batxilergo amaierako ebaluazioaz eta Batxilergoko tituluz dihardu:

- 1. atalak dio ikasleek **bakarkako ebaluazio** bat egingo dutela dagozkien gaitasunak zenbateraino bereganatu dituzten egiaztatzeko.
- 2. atalak dio titulua eskuratzeko **beharrezkoa** dela batxilergoko **amaierako ebaluazioa gainditzea**.
- 3. atalak dio Batxilergoko tituluan gutxienez agertuko direla egindako modalitatea eta batxilergo amaierako kalifikazioa.

Artikuluetan ez dago datu gehiagorik bakarkako ebaluazio horren eta Errege Dekretuaren 34. artikuluan zehatzago definitzen den amaierako ebaluazioaren arteko desberdintasunei buruz.

3. *Eskumen erabakigarriak eskola kontseiluetatik zuzendariarengana transferitzea*

LOMCEn ezarritakoari dagokionez eta dekretu proiektuaren arabera, eskola kontseiluaren (edo OEG) esku jarraituko du ikastetxeko hezkuntza proiektua onartzeko eskumenak (21. artikulua), bai eta hizkuntza proiektua onartzekoak (23.7 artikulua). Autonomia proiektua duten ikastetxeetan ere kontseiluari dagokio proiektu horiek onartzea (32.3 artikulua).

4. *Curriculum oso agintzailea eta hertsiki arautua*

Oinarrizko Irakaskuntzan bezalaxe, oso eredu orokorra aukeratu da, lorpen adierazlerik kontuan hartzen ez duena, beraz, esparru zabala uzten die zentroei garapenerako.

Dekretu zirriborro honen 13.3 artikuluan ezarritakoari jarraiki, 1105/2014 Errege Dekretuan izaera komuneko eta Estatu osorakotzat jo zirenak dira irizpideei begira aintzat hartu diren eduki-zerrenda eta lorpen-adierazle bakarrak, eta haiei erantsi beharko zaizkie ikastetxe bakoitzak bere curriculum proiektuan zehaztu dituenak.

Azken finean, ahalik eta gutxien arautzea aukeratu da.

LOMCEko xedapenekin lotutako artikuluei buruzko irakurketa honela laburbildu daiteke:

Dekretu proiektuak ahalik eta neurri txikienean aplikatzen ditu Kontseiluaren iritziz LOMCEren alderdi negatiboak direnak, hau da, irakaskuntza akademikoen aukeratik batxilergora sartzeko prozesua, batxilergoko titulua eskuratzeko proba, eskumen erabakigarriak eskola kontseiluetatik zuzendariarengana transferitzea eta curriculum oso agintzailea.

B) Nola zehazten den Heziberri 2020 Plana curriculumaren Dekretu proiektuan:

Zioen adierazpenean azaltzen den bezala, dekretu-proiektu honek Heziberri 2020 Planetik hartzen ditu oinarriak, beste hezkuntza-etapa batzuetako oinarri berberak. Hain zuzen, artikuluetako testua Oinarrizko irakaskuntzako curriculumaren dekretu proiektuko berbera da hainbat puntutan (II, IV, V eta VIII kapituluetan), zeinari buruzko txostena egin baitzuen kontseilu honek uztailean. Era berean, II. eranskinaren planteamendu orokorra ere antzekoa da.

Horregatik, argudio guztiak ez errepikatze aldera, lehen zatian etaparen alderdi espezifikoak jasotzen dira eta ondoren Heziberri Planak Dekretu honi buruz egiten dituen ondorioak, hau da, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumari buruz eginiko analisitik ateratakoak.

Segidan jasota daude dekretu proiektu honi buruzko ohar espezifikoak:

- **Elebitasun eta eleaniztasunari** buruzko 10. artikuluan bi nobedade daude:
 - Euskararen mailari dagokionez, Oinarrizko Hezkuntzan “praktiko eta eraginkorra” izatetik “aurreratua” izatera igaro da, eta atzerriko hizkuntzetan “nahikoa” izatetik “praktiko eta eraginkorra” izatera pasa da; bestalde, 2. hizkuntza, lehen zehaztu gabe zegoena, orain “nahikoa” bezala definitu da.
 - 6. atala B ereduaren ezarpen progresibo eta planifikatuari buruzkoa da.

Kontseiluaren iritziz, baikorra da etapa horretan B eredia zabaltzea. Dena den, uste du beharrezkoa dela aurreko araudia eguneratzea eta dagokion araua garatzea.

- **Irakaskuntza ordutegien bilakaera**

Gutxieneko eta erreferentziazko ordutegiak dekretuko zirriborroaren I. eranskinean ageri dira, eta irizpen honen Eranskinean, indarrean dagoen 97/2010 Dekretuko ordutegiekin alderatu ditugu.

Konparaketa horretan ikus liteke Batxilergoko 1. mailan handitu egin dela gutxieneko ordutegia, eta 32 ordutik (33 erlijioa ematen dutenen kasuan) 34 ordura pasa dela. Bigarren mailako ordutegia ere 33 ordura zabaldu da. Lehen ikasturtetik Mundu Garaikideko Zientziak ikasgaia desagertzen da, eta 2. ikasturtetik Filosofiaren Historia. Hautazko ikasgaiari dagokienez, 2 ordukoak izango dira 3 ordukoak izan beharrean, eta ikastetxeak libreki erabil ditzakeen ordu kopuruan bi ordu gehiago erantsi dira.

Kontseiluaren iritziz, nahiz eta ordutegia 34 ordura handitzeak antolakuntzarako aukera gehiago eman ikastetxeari (hautazkoak, indargarriak...), gehiegizkoa izan daiteke, beraz ohartarazten du ikastetxearen kudeaketak kontuan hartu behar luke ordutegiaren antolaketa, kaltegarria izan ez dadin ikasleen errendimendurako.

Bestalde, Kontseilu honetan sarritan eztabaidatzen da Batxilergoko 1. mailako ikasleek zein datatan bukatu behar duten ikasturtea (une honetan maiatzaren hasieran) unibertsitaterako prestatu behar duten 2. mailakoei egokitzeko.

Horregatik, Kontseiluak uste du beste antolakuntza aukera batzuk aztertu beharko liriatekeela, esaterako Batxilergoko 1. mailan ikastegunak luzatzea, ikasleen jarduna laburtzeko.

- **Batxilergo artistikoa:** 23/2009 Dekretuaren 10. artikulua bi bide jasotzen ditu Arte modalitatearen barruan: Arte plastikoak, irudia eta diseinua da bat, eta Arte eszenikoak, musika eta dantza bestea; bakoitza bere modalitateko ikasgaiekin. Dekretu proiektu honetan ezabatu egin dira.

Kontseiluaren iritziz, kontuan izanik Dantzerti arte eszenikoen zentroa berriki sortu dela, komenigarria litzateke bi bideak mantentzea eta horrela, irakaskuntza hauek indartzea.

- **Aniztasuna zaintzea:**

23/2009 Dekretuko 21. artikulua hainbat neurri ezartzen ditu aniztasuna zaintzeko, eta ikasleen premia espezifikoari erantzuna emateko.

Kontseiluari komenigarri iruditzen zaio gai horri buruzko artikulua bat sartzea.

- **Irakasleen arteko koordinazioa:**

24. artikuluan ikasgai bera ematen duten irakasleen arteko koordinazioa aipatzen da.

Kontseiluak uste du, 23/2009 Dekretuak dioen bezalaxe, mantendu egin beharko litzatekeela maila berean irakasgai bera ematen duten irakasleen artean beharrezkoa den koordinazioaren erreferentzia.

- **Irakasle eta familientzako prestakuntza**

29. artikulua irakasleentzako prestakuntza deitzen da, nahiz eta Oinarrizko Hezkuntzaren Dekretuan familientzako prestakuntza ere aipatzen den. 7. artikulua hauxe dio: “ingurune komunitarioak hezkuntza komunitate bihurtzeko prozesua bideratuko du” eta 9. artikulua hau: “hezkuntza arloko profesionali eta familiei zuzendutako ko-hezkuntzari buruzko prestakuntza planak”.

Bestalde, 2. atalean Sailak sustatutako prestakuntza-ekintzen planteamenduaren ezaugarriak zerrendatzen dira, eta denak irakasleei buruzkoak dira.

Kontseiluak proposatzen du izenburuan familien erreferentzia bat sar dadila, eta edukian haiei zuzendutako prestakuntza-ekintzak planteatu daitezela.

Segidan, Dekretu honi aplikatzen zaizkion Heziberri Planeko alderdiei buruzko ondorioak jaso ditugu, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumari buruz egin den azterketatik abiatuta, argudio guztiak ez errepikatzearren.

- Oinarrizko gaitasunak aukeratzeari dagokionez, Kontseiluak uste du marko barne-hartzaile sinplea dela eta erraza komunikatzeko eta programazio didaktikora nahiz ebaluaziora eramateko.
- Gaitasun espezifiko bakoitza programatzeari dagokionez, aipatzekoa da hauek bakarrik jasotzen direla: etapako helburuak, eduki blokeak eta ebaluazio irizpideak. Aldiz, ez da ageri horiekin lotutako lorpen adierazlerik, eta beraz irteera profilak zehaztasuna galtzen du autonomia irabazi heinean.

- Planteamendu metodologikoari dagokionez, uste dugu alderdi positiboenetakoa dela, gaitasunen garapenarekin batera. Hala ere, Sailari eskatzen diogu ikastetxeen esku jar ditzala gaitasunek barne hartzen dituzten ikaskuntza egoeren adibideak.
- Bi hizkuntza ofizialetako hizkuntza eta literatura komunikazioko gaitasunen erreferentziazko maileri dagokienez, ez dago argi zertan datzan “ikasleen baldintza sozio-linguistikoetara” egokitzea, eta eskatzen da bermatu dadila ikasle guztiek maila horiek erdiesten dituztela bi hizkuntzetan.
- Irakasleen arteko lankidetzaren mekanismoak (24.1 eta 2 artikulua), proposatzen da gainbegiratze-mekanismoak ezartzea, eta mekanismo horiek mintegi buruen esku gera litezke.
- Ikastetxeetako autonomia proiektuei dagokienez (31. artikulua), Kontseiluaren ustez komenigarria litzateke gehiago zehaztea langileen kudeaketa esparrua, garapen maila txikiagoa baitu.
- Irakasleen gaitasunen ebaluazioari dagokionez (29.4 artikulua), Kontseiluak ez proposatzen du ikastetxe publikoen irakasleriaz gain, itunpeko ikastetxeen irakasleria ere kontuan hartzea, sistema osoaren azken emaitzen erantzulea baita. Halaber proposatzen du gai hau dekretu proiektuaren 4. xedapen gehigarrian jasotako Hezkuntza sistema hobetzeko planaren lehentasunen artean sartzea.
- Ikasgelako ikasle ratioei dagokienez (19. artikulua), dekretu maila duen plangintzako araudi espezifikoa daude jasota, bai ikastetxe hitzartuentzat eta bai publikoentzat. Bestalde, bermatu egin beharko litzateke gaitasun handiko ikasleek ez dutela sustapenerako aukerarik galduko ezarritako ratioen ondorioz.
- Familien eta ikastetxearen arteko hezkuntza konpromisoei dagokienez, Kontseiluaren ustez bi alderdiak maila berean jarri beharko lirateke, eta proposatzen du Eskola Kontseilua edo OEG izan daitezkeela konpromisoa onartzen duten organoak, irakasleen klaustroa izan beharrean.
- Hezkuntza sistema hobetzeko planari dagokionez, Kontseiluaren ustez Sailak berau osatzeko egutegi bat argitaratu beharko luke.

Zenbait ohar

- 2 e) artikuluan “ezagutza eremuak” aipatzen dira, baina Batxilergoan ez dago halakorik.
- 25.4 artikuluko “Material kurrikularretan hizkeraren erabilera ez sexista bermatu behar da...” esaldia hurrengo 5. atalean ere errepikatzen da.
- 26.2 artikulua ezin da aplikatu, “irakaskuntzan emakume eta gizonen presentzia orekatua” planteatzen denean, dekretu proiektuak zehazten ez badu.
- 4. xedapen gehigarrian Oinarrizko Hezkuntza aipatzen da Batxilergoa esan behar lukeen tokian.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2015eko azaroaren 18an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUA

ERANSKINA. Gutxieneko ordutegiak aurrez aurre (asteko ordu kopuruak Batxilergoan)

Batxilergoaren 1 maila

Área	23/2009 Dekretua	Dekretu proiektu berria	aldea
Gaztelania eta Literatura I	3	3	
Euskara eta Literatura I	3	3	
Atzerriko Hizkuntza I	3	3	
Filosofia eta herritarrak	2	3	1
Mundu garaikiderako zientziak.	2		-2
Orokorrak: Matematika (Zientziak modalitatea) Latín I edo Matematika I ((Giza eta Gizarte Zientziak mod) Artearen Oinarriak I (Arteak modalitatea)		3	3
Gorputz Hezkuntza	2	2	
Modalitatezko ikasgaiak	9(3)	6(2)	-3
Aukerako Ikasgaiak	3(1)	4(2)	1
Erljioa	1		
Nahierara hartzeko orduak	5	7	2
Guztira	32*	34	2

* 33 erlijioa aukeratzen bada.

Batxilergoaren 2. maila

Área	23/2009 Dekretua	Dekretu proiektu berria	aldea
Gaztelania eta Literatura I	3	3	
Euskara eta Literatura I	3	3	
Atzerriko Hizkuntza I	3	3	
Espaniako Historia		3	
Filosofiaren Historia.	3		-3
Orokorrak: Matematika (Zientziak modalitatea) Latín I edo Matematika I ((Giza eta Gizarte Zientziak mod. Artearen Oinarriak I (Arteak modalitatea)		3	3
Modalitatezko ikasgaiak	9(3)	6(2)	-3
Aukerako Ikasgaiak	3(1)	4(2)	1
Erljioa	1		
Nahierara hartzeko orduak	5	8	3
Guztira	32*	33	1

* 33 erlijioa aukeratzen bada.

ERANSKINA. Erreferentzia ordutegiak aurrez aurre (asteko ordu kopuruak Batxilergoan)

Batxilergoaren 1 maila

<i>Área</i>	<i>23/2009 Dekretua</i>	<i>Dekretu proiektu berria</i>	<i>aldea</i>
Gaztelania eta Literatura I	3	3	
Euskara eta Literatura I	3	3	
Atzerriko Hizkuntza I	3	3	
Filosofia eta herritarrak	3	3	
Mundu garaikiderako zientziak.	2		-2
Orokorrak: Matematika (Zientziak modalitatea)			
Latín I edo Matematika I (Giza eta Gizarte Zientziak mod.)	4	4	
Artearen Oinarriak I (Arteak modalitatea)			
Gorputz Hezkuntza	2	2	
Modalitatezko ikasgaiak	12(3)	8(2)	-4
Aukerako Ikasgaiak	4(1)	8(2)	1
Erljioa	1		
Guztira	32*	34	2

* 33 erlijioa aukeratzen bada.

Batxilergoaren 2. maila

<i>Área</i>	<i>23/2009 Dekretua</i>	<i>Dekretu proiektu berria</i>	<i>aldea</i>
Gaztelania eta Literatura I	3	3	
Euskara eta Literatura I	3	3	
Atzerriko Hizkuntza I	3	3	
Espaniako Historia	4	4	
Filosofiaren Historia.	3		-3
Orokorrak: Matematika (Zientziak modalitatea)			
Latín I edo Matematika I (Giza eta Gizarte Zientziak modalitatea)		4	4
Artearen Oinarriak I (Arteak modalitatea)			
Modalitatezko ikasgaiak	12(3)	8(2)	-4
Aukerako Ikasgaiak	4(1)	8(2)	4
Erljioa	1		
Guztira	32*	33	1

* 33 erlijioa aukeratzen bada.

Voto particular presentado por STEE-EILAS al Dictamen al proyecto de decreto por el que se establece el currículo de Bachillerato y se implanta en la CAPV.

"El Plan "Heziberri 2020" responde a la idea de conjugar las líneas estratégicas de innovación y desarrollo establecidas en el marco europeo para el año 2020 con respecto a la educación y la formación, con los retos educativos propios de nuestro contexto y entorno, a fin de que las futuras generaciones estén bien preparadas para vivir en el País Vasco y en el mundo.

El Plan está elaborado teniendo en cuenta los objetivos educativos europeos para el 2020, la política educativa del Gobierno Vasco para la actual legislatura y los resultados del sistema educativo vasco".

Este es el comienzo del texto del Marco del modelo Educativo Pedagógico en la presentación del documento.

Así mismo, la estrategia Europea "Rethinking Education", que establece los objetivos y líneas estratégicas Europeas para los diferentes sistemas educativos, establece como punto de partida la siguiente reflexión:

"Europa necesita replantearse cómo los sistemas de educación y formación pueden proporcionar las capacidades que necesita el mercado de trabajo"

Las medidas que se proponen para lograr ese objetivo, son, entre muchas otras, las siguientes: centrarse en los resultados del aprendizaje, adaptar los métodos de evaluación para que la educación se ajuste más a las necesidades del mercado de trabajo, utilización de financiación tanto pública como privada...

HEZIBERRI2020 ha hecho suyas todas estas recomendaciones dictadas por la Comisión Europea, y es ahora, con la aprobación de los currículos de Bachillerato, cuando se pone la guinda al pastel.

Por ello, **STEILAS** considera que la aprobación de estos decretos supone un paso más en la mercantilización de nuestro sistema educativo, alejándolo de las ciudadanas y ciudadanos, y dejándolo en manos de la OCDE y la Comisión Europea.

En concreto en el dictamen de bachillerato no estamos de acuerdo con los siguientes puntos:

- 1.- Considera que las circunstancias de incertidumbre actuales no justifican en ningún caso las imprecisiones, retrasos y vacilaciones del Departamento con la comunicación a los centros y la comunidad educativa de los cambios impuestos para adaptarse a la nueva situación
- 2.- En el articulado no hay más datos sobre la diferencia entre esta evaluación individualizada y la evaluación final que aparecen más definidos en el artículo 34 del Real Decreto. Todo lo cual conlleva la aceptación de la prueba final del Bachillerato que impone la LOMCE
- 3.- El proyecto de decreto no renuncia suficientemente a mantener los aspectos más negativos de la LOMCE.
- 4.- Mantiene el precepto de la LOMCE de inclusión de la Religión en esta etapa generando una confusión horaria en el reparto de las asignaturas optativas, teniendo en cuenta que ni la LOMCE ni el Concordato con la Santa Sede obligan a ofertarla
- 5.- Es significativa la ausencia de referencias concretas a la importancia de la Escuela Pública en la defensa de intereses comunes, plurales y no dogmáticos, representativos de la sociedad vasca actual.

Por todo ello el STEILAS emite este voto particular al dictamen del Consejo escolar de Euskadi.

Bilbao 19 de Noviembre de 2015

Voto particular presentado por CCOO Irakaskuntza al Dictamen del Consejo Escolar de Euskadi sobre el borrador de decreto de Bachillerato Heziberri 2020

Ante el resultado final de la votación del dictamen, realizado en el Plenario del Consejo Escolar de Euskadi, que no ha recogido la mayoría de las enmiendas presentadas, las/os abajo firmantes emiten el siguiente voto particular:

1. Consideramos que las circunstancias de incertidumbre actuales no justifican en ningún caso las imprecisiones, retrasos y vacilaciones del Departamento de Educación con la comunicación a los centros y la comunidad educativa de los cambios impuestos para adaptarse a la nueva situación, situación que no ha sido debidamente criticada en el dictamen.
2. En el articulado del borrador de decreto no hay más datos sobre la diferencia entre esta evaluación individualizada y la evaluación final que aparecen más definidos en el artículo 34 del Real Decreto. Todo lo cual conlleva la aceptación de la prueba final del Bachillerato que impone la LOMCE, situación que se minimiza en el dictamen.
3. El proyecto de decreto no renuncia suficientemente a mantener los aspectos más negativos de la LOMCE, aspecto en el que no incide el dictamen.
4. Mantiene el precepto de la LOMCE de inclusión de la Religión en esta etapa, generando una confusión horaria en el reparto de las asignaturas optativas. Teniendo en cuenta que ni la LOMCE ni el Concordato con la Santa Sede obligan a ofertarla, no compartimos que el dictamen no haga rectificar este apartado.
5. Es significativa la ausencia de referencias concretas a la importancia de la Escuela Pública en la defensa de intereses comunes, plurales y no dogmáticos, representativos de la sociedad vasca actual. Por ello, el Consejo llama a su inclusión en el decreto definitivo.

Por todo ello, CCOO Irakaskuntza emite este voto particular al dictamen del Consejo Escolar de Euskadi.

Ismael Redondo Rojo

Pablo García de Vicuña Peñafiel

Bilbao 19 de Noviembre de 2015

Voto particular presentado por los padres y madres de la Escuela Pública al Dictamen del Consejo Escolar de Euskadi sobre el borrador de decreto de Bachillerato Heziberri 2020

"El Plan "Heziberri 2020" responde a la idea de conjugar las líneas estratégicas de innovación y desarrollo establecidas en el marco europeo para el año 2020 con respecto a la educación y la formación, con los retos educativos propios de nuestro contexto y entorno, a fin de que las futuras generaciones estén bien preparadas para vivir en el País Vasco y en el mundo.

El Plan está elaborado teniendo en cuenta los objetivos educativos europeos para el 2020, la política educativa del Gobierno Vasco para la actual legislatura y los resultados del sistema educativo vasco".

Este es el comienzo del texto del Marco del modelo Educativo Pedagógico en la presentación del documento.

Así mismo, la estrategia Europea "Rethinking Education", que establece los objetivos y líneas estratégicas Europeas para los diferentes sistemas educativos, establece como punto de partida la siguiente reflexión:

"Europa necesita replantearse cómo los sistemas de educación y formación pueden proporcionar las capacidades que necesita el mercado de trabajo"

Las medidas que se proponen para lograr ese objetivo, son, entre muchas otras, las siguientes: centrarse en los resultados del aprendizaje, adaptar los métodos de evaluación para que la educación se ajuste más a las necesidades del mercado de trabajo, utilización de financiación tanto pública como privada...

HEZIBERRI2020 ha hecho suyas todas estas recomendaciones dictadas por la Comisión Europea, y es ahora, con la aprobación de los *currícula* de Bachillerato, cuando se pone la guinda al pastel.

Por ello, **las personas que representamos a los Padres y las Madres de la Escuela Pública Vasca** consideramos que la aprobación de estos decretos supone un paso más en la mercantilización de nuestro sistema educativo, alejándolo de las ciudadanas y ciudadanos, y dejándolo en manos de la OCDE y la Comisión Europea.

Así pues, mostramos nuestro desacuerdo con el Dictamen 15/20 emitido por el Pleno del Consejo Escolar de Euskadi al proyecto de Decreto por el que se establece el currículo del bachillerato y se implanta en la CAPV. En concreto, en el dictamen de bachillerato NO estamos de acuerdo con la ausencia de los siguientes puntos en el mismo:

1. Consideramos que las circunstancias de incertidumbre actuales no justifican en ningún caso las imprecisiones, retrasos y vacilaciones del Departamento con la comunicación a los centros y la comunidad educativa de los cambios impuestos para adaptarse a la nueva situación.

2. En el articulado no hay más datos sobre la diferencia entre esta evaluación individualizada y la evaluación final, que aparecen más definidos en el artículo 34 del Real Decreto. Todo lo cual conlleva la aceptación de la prueba final del Bachillerato que impone la LOMCE.

3. El proyecto de decreto no renuncia suficientemente a mantener los aspectos más negativos de la LOMCE.

4. Mantiene el precepto de la LOMCE de inclusión de la Religión en esta etapa generando una confusión horaria en el reparto de las asignaturas optativas. Se debe tener en cuenta que ni la LOMCE ni el Concordato con la Santa Sede obligan a ofertarla.

5. Es significativa la ausencia de referencias concretas a la importancia de la Escuela Pública en la defensa de intereses comunes, plurales y no dogmáticos, representativos de la sociedad vasca actual.

6. Consideramos que el incremento horario no supone una mejora de las prácticas educativas en la etapa de bachillerato sino, al contrario, un exceso de la carga lectiva semanal que puede suponer una disminución en los resultados académicos de los/as alumnos.

Por todo ello **las personas que representamos a los Padres y las Madres de la Escuela Pública Vasca** emitimos este voto particular al Dictamen 15/20 emitido por el Pleno del Consejo Escolar de Euskadi al proyecto de Decreto por el que se establece el currículo del bachillerato y se implanta en la CAPV

Batxilergoari buruzko Eskola Kontseiluaren txostenaren aurkako ELAren bozka partikularra.

ELAk Eskola Kontseiluak osaturiko txostenaren aurkako botoa ematen du. Izan ere, txostenak ez baititu Batxilergorako Curriculumari dagokionean sindikatuarentzat larrienak diren neurriak behar bezala azaltzen ezta salatzen ere.

Batxilergorako dekretu proiektuek argi uzten dute LOMCEk hezkuntza sistema osoa zentralizatu eta kontrolatu eta edukia nahiz pedagogia bera kontrolatzeko ezartzen dituen tresna guztiei bide ematen diela Eusko Jaurlaritzak. Izan ere, arlo edo ikasgai bakoitzeko oinarrizko kompetentziak, bere osagaiak, helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak oinarrizko arautegiaren baitakoak izan dira.

Hau honela eta LOMCE lege organikoa dela kontutan izanik, Hezkuntza Sailak bertan agertzen diren erasoei aurre egiten ez dien heinean edo bestelako bide argi bat planteatzen ez duen heinean erreforma bere oinarrizko elementuetan ezartzeko bidea irekitzen du.

Curriculum dekretu hauek LOMCEk aurreikusten dituen "errebalidak" eta hezkuntza erreforman ezartzen diren ebaluazio irizpideak bere egiten dituzte eta ondorioz Euskal hezkuntza sistemaren, curriculumaren eta pedagogiaren eta edukien gaineko erabateko kontrola espainiar estatuaren esku uzten dute. Honen baitan, curriculum dekretuen gehigarrietan egiten den bezala, kompetentzietan oinarrituriko pedagogia eta curriculumak proposatzeak bere zentzu osoa galtzen du, izan ere LOMCEk ezartzen duen estatuaren kontrolpeko ebaluazio sistemak ezerezean uzten baitituzte horrelako planteamenduak.

Honela, curriculumak ez da osatzen euskal nortasuna eta kultura oinarri eta ardatz harturik, espainiar estatuak ezarritako curriculumaren osagarri moduan baizik.

Hizkuntzen trataera dagokionez, curriculumak euskara ardatz izango duen sistema eleaniztuna proposatzen duen arren, LOMCEk ezartzen duen muga bere eginez, egungo hizkuntza ereduen sistema (A,B,D) berresten du. Jakina da hizkuntza ereduen sistemak ez duela ikasleen euskalduntzea lortzen eta LOMCEk espreski debekatu eta mugatzen dituen norantzan pauso berriak emateko premia dagoela, euskarazko murgiltze ereduak oinarri hartuta.

LOMCEk oinarri duen irakaskuntzaren ikuspegi neoliberal-merkantilista ere, hein handi batean curriculumean txertatua dago.

Hau honela, ELArentzat onartezina Oinarrizko Hezkuntza arautu eta ezartze helburu duten dekretu hauek. Izan ere, hezkuntza erreformak ezartzen dituen eraso eta kontrol neurriei aurre ez egiteaz gain aplikatzeko bide ematen baitie. Honela Eusko Jaurlaritzak Heziberri LOMCEren neurriak eginiko jantzi bihurtu du, erreformak berarekin dakartzan atzerapauso pedagogiko, eduki ideologiko eta ikuspegi merkantilistari leku eginez eta, beste behin ere, euskal hezkuntza sistema espainiar gobernuaren menpe jarritz.

Honen guztiaren baitan, ELAren ustez Eskola Kontseiluak Hezkuntza Sailari Heziberri 2020ren baitako Batxilergorako curriculum dekretu hau erretira dezala eskatu beharko lioke. Hezkuntza erreformaren ezarpena eten dezatela, hezkuntza

komunitatearen eta euskal jendartearen eskakizunei erantzun diezaietela eta LOMCEri modu eraginkorren aurre egiteko eta gure hezkuntza sistema modu alternatiboan garatzeko aliantzak egin ditzatela hezkuntza eragileekin.

Bilbon, 2015eko azaroaren 19an

Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta EAEn ezartzen duen proiektu Dekretuari buruzko Batzorde Iraunkorraren Txostena onartu ondoren LABen boto partikularra.

EAEko Hezkuntza Sailak Batxilergoari dagozkion curriculum dekretuak Heziberri proiektuaren baitan aurkeztu ditu, DBHko dekretuen jarraipen gisa. Orduan adierazi genuen bezala, hauek aztertzeko irizpide argia dugu: dekretu hauek Euskal Herriak behar duen hezkuntza ereduari ekarpena egiten diote?. Bada, erantzuna argia da, EZ. Izan ere,

1. LOMCEren itzalean garatutako curriculum dekretua da
2. Euskal kulturaren transmisioaren eta eraberritzea ez du bermatzen.
3. Ez da kontenplazten ez ikuspegi askatzaile ez eraldatzailerik. Konpetentzien bidezko irakaskuntza garatzeko asmoa jasotzen den arren, konpetentzia hauek ez daude Euskal Herriaren errealitatearen baitan definiturik eta hortaz edozein lurraldetarako erabilgarria da. Egungo *status quo*a mantentzeko baliagarria da.
4. Hizkuntzaren trataerari dagokionez, egungo ikas ereduak mantentzearen aldeko apustua egiten du, egungoak gehiago garatuz lorpen handiagoak izango direlakoan. Batxilergoan B ereduak ezarriko dute (euskalduntzen ez duen ereduak). Ez da profil eskakizunik zehazten.
5. Hezkidetzaren planteamendu pedagogikoa izanik ikas-irakas prozesu osoa busti behar du. Ez da horren aipamenik egiten dekretuan.

LABen ustez, Euskal Herrira begirako bide propioa garatzeko ausardia behar dugu une hauetan. Inposizioei aurre egiteko eta hezkuntza sistema propioaren bidean urratsak ematen jarraitzeko berme bakarra delako. Eta bide horretan Batxilergoaren curriculumak ere, bost ardatz hauen gainean eraiki beharko genituzke:

1. Euskal Curriculumak.
2. Hezkuntzaren gaineko ikuspegi askatzailea eta eraldatzailea.
3. Ikasle euskaldun eleanitzen proposamena.
4. Hezkidetzaren, gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna lortzen laguntzeko planteamendu hezitzailea.
5. Aukera berdintasuna eta aniztasunaren trataera. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan ikasle bakoitzaren ahalmenei dagokien trataera, aniztasunaren bideratzea, ez da modu integral eta eraikitzailean kontenplazten. Curriculumak aukera berdintasuna (ikasle bakoitzari behar dituen baliabideak) bermatu eta aniztasunaren trataera bideratzeko neurri zehatzak eskaini beharko lituzke.

LABek hezkuntza burujabetzaren bidean herri gisa elkarlanean Hezkuntza sistema propio osatzeko determinazioa du. Egungo markoa gainditu eta inposaketa orori aurre egiteko gure hezkuntza sistema urratsez urrats eraikitze bidegurutzean gaude. Bide hau prest dagoen ororekin konpartitzeko prestutasuna dugu gainera. Ez dezagun aukera hau galdu.